



TARTALO. SEMANA DE LO FANTÁSTICO EN LAS ARTES EN VITORIA-GASTEIZ
TARTALO. WEEK OF THE FANTASTIC IN THE ARTS IN VITORIA-GASTEIZ (SPAIN)
TARTALO. FANTASIAZKOAREN ASTEA ARTEETAN



TARTALO. ANTZERKI MUSIKALAREN

I. NAZIOARTEKO LEHIAKETA

Tartalok, Marianisten Antzerki Musikaleko Eskolarekin lankidetzan, bere “Fantasiazkoaren Inguruko Antzerki Musikalaren I. Nazioarteko Lehiaketa” jarri du abian.

Deialdiaren helburua

Lehiaketaren helburua aurkeztutako antzezlan hoberenak saritzea da, eta, honekin batera, Antzerki Musikalaren generoa gazteen artean bultzatea fantasiakoa gai trantsibertsal moduan erabiliz.

Antzerki Musikala arte eszenikoaren espresio modu bat da, non kantua, dantza eta interpretazioa batzen diren. Beraz, aurkeztutako lan bakoitzak hiru diziplina hauek modu batera edo bestera lantzen duen genero honetako gai bat izan beharko du oinarri. Generoa bera oso zabala da (lan klasikoak, lan garaikideak, ...).

Honako irizpide hauen arabera ebaluatuko da poster bakoitza:

- Proposamenaren originaltasuna
- Honen estetika eta taularatzea
- Ahozko kalitatea
- Interpretazioaren kalitatea
- Koreografiaren kalitatea eta originaltasuna

Parte-hartzea

Lehiaketak mundu osoko ikasleen parte-hartzea onartzen du, hauen adina lehiaketaren oinarrietan onartutakoran barruan baldin badago (6 eta 18 urte bitartean).

Parte-hartzea taldekakoa izango da (gutxienez 10 pertsona eta 30 gehienez) eta partaide bakoitza talde bakar batekin soilik aurkeztu ahal izango da.

Parte hartzen duten taldeek eskola, erakunde edo elkarte baten parte, edo lehiaketarako espreski sortutako talde independenteak izan daitezke. Eskola/erakunde/elkartean kasuan, zilegi da pertsona bat ordezkari izan eta talde bat baino gehiago aldi berean ordezkatzeari, baldin eta taldeetako partaideak ezberdinak badira.

Talde bakoitzak 2 eta 5 minutu arteko bideo bat bidaliko du. Bideoak sekuentzia-planoan egin behar du (hartze bakar batean eta eteterik gabe) eta soinuak sekuentzia berdinean grabatua. Horrela, emaitza inolako soinu ediziorik gabe baloratuko da.



TARTALO. SEMANA DE LO FANTÁSTICO EN LAS ARTES EN VITORIA-GASTEIZ
TARTALO. WEEK OF THE FANTASTIC IN THE ARTS IN VITORIA-GASTEIZ (SPAIN)
TARTALO. FANTASIAZKOAREN ASTEA ARTEETAN



Aurkezteko modua

Bideoak posta elektronikoz bidaliko dira **teatromusical@tartalogasteiz.com** helbidera.

Hiru artxibo bidali behar dira:

- Bideoa MP4 formatoan
- Taldeko ordezkariaren (adin nagusikoa izan behar du) datu pertsonalak, izen-abizenak, NANa, jaiotze data, telefono zenbakia eta posta-elektroniko helbidea.
- Taldekide bakoitzaren izen-abizen, NAN eta jaiotze datak.

Aurkezteko epea **2024ko maiatzaren 1ean** amaitzen da, eta materiala ekainaren 15era arte bidali ahalko duzue.

Epaimahaia

Onartutako lanak epaimahai espezializatu batek aztertuko ditu aurrez aipatutako **irizpideak** kontuan hartuz.

Epaimahaia ondorengo pertsonak osatzen dute:

- María Piérola (Marianisten Antzerki Musikaleko Eskolako zuzendaria eta aktorea)
- Alain Ruiz Treviño (Marianisten Antzerki Musikaleko Eskolako arduraduna eta aktorea)
- Mercedes Junguitu (dantza irakaslea eta dantzari)
- Urko Fernández Marzana (Antzerki musikaleko dantza kapitaina eta aktorea Gran Vía).

Epaia, talde bakoitzeko arduradunei posta elektronikoz alde zurretik jakinaraziko zaiena, azaroan emango da jakitera, Tartalo. Fantasiakoaren II. Astea Arteetan-en programaren barruko ekitaldi batean, Vitoria-Gasteizen (Espainia).

Sariak

Sarituek, adinaren arabera bi kategoriatan banatuak, diploma bat eta honako diru-sariak jasoko dituzte (zenbateko hauei indarrean dagoen araudiak zehazten duen zerga atxikipena kenduko zaie):

- 2017 eta 2015 artean jaiotakoak: 150€
- 2014 eta 2012 artean jaiotakoak: 150€
- 2011 eta 2005 artean jaiotakoak: 150€



TARTALO. SEMANA DE LO FANTÁSTICO EN LAS ARTES EN VITORIA-GASTEIZ
TARTALO. WEEK OF THE FANTASTIC IN THE ARTS IN VITORIA-GASTEIZ (SPAIN)
TARTALO. FANTASIAZKOAREN ASTEA ARTEETAN



Lehiaketaren epaia argitaratu eta gehienez bi urte igaro artean, ipuin sarituak antolakuntzaren esku geratuko dira. Honek, lanak oroitzapenezko liburuan argitaratzeaz gain, erakunde kolaboratzaileen bitartekoetan ere erreproduzitu ahal izango ditu, autore direnez apirilaren 12ko 1/1996 Errege Dekretu Legegileak bere 14. artikuluan gordetzen dizkien eskubide besterezinei kalterik egin gabe.

Berme eta erantzukizunak

Aurreko guztiarekin loturik, eta lehiaketaren garapenean ohiz kanpoko egoerak ekiditeko asmoz, antolakuntzak honakoaz ohartarazten du:

1. Lehiaketa honetan parte hartzeak bere oinarriak onartzea dakar. Hortaz, aurreikusi gabeko intzidentzia guztiak lehiaketaren mesedetan ebatziko ditu antolakuntzak.
2. Lehiaketan lana aurkezten duten pertsonak izango dira hauen edukiaren arduradun legalak.
3. Taldeen ordezkariak lehiaketaren antolakuntza salbuestera derrigortzen dira honek lanen aurkezpen garaian hemen egindako adierazpenen zehaztasun eta egiatasun ezaren ondorioz jasan lezaken edozein kalteren aurrean. Adierazpen hauek sariak banatu arte egongo dira indarrean.
4. Antolakuntzak beretzat gordetzen du bideoak bere dibulgazio-kanaletan argitaratzeko eskubidea, bai eta komunikabide eta ikus-entzunezko bitartekoetan ere, egoki iritziz gero.